**BAZEN BEHIN PROIEKTUA**
**2016**

www.bazenbehin.net

## IDATZI ZURE IPUINA ...

Orain dela urte batzuk etxeak oso ezberdinak ziren, baina batez ere Juanena. Bere bizitzan ere nahiko gauza arraroak gertatzen ziren, hainbeste gauza bat bakarrik kontatuko dizuedala. Ikastola 3 urtetik 14 urtetaraino zen, baina guztiak gela berdinean! Egun batean ikastolara joan zenean, bere adinekoekin elkartu beharrean, hau da 10 urtekoekin, 14 urtekoekin topatu zen. Galdetuko duzue, zergatik? Ez zelako gogoratzen bidai bat egingo zutela! Etxera itzuli zenean oroitu zen bidaiaz baina ez zekien nora, baina bazekien izen polita iruditu zitzaiola eta herri kikki bat zela. Egun guztia igaro zuen herrien izenak bilatzen eta azkenean aurkitu zuen, Leitza. Aurkitu ondoren, bere amak dutxatzera joateko esan zion, hau da, errekara joateko ez zegoelako ur korronterik etxeetan. Etxetik atera zen, baina errekara joan ordez, Leitzako bidea hartu zuen.

Azkenean iritsi zen. Herria ikusten hasi zen, baina bitartean, bere etxean oso kezkatuak zeuden. Orain gogoratu naiz ez dizuedala esan zeintzuk edo nola bizi ziren etxeetan. Etxeetan normalean gurasoak, semeak, izebak, osabak, amona, aitonak... Guztiak etxe berberan bizi ziren. Gauza da Juanen etxeko guztiak kezkatuak zeudela. Bera, bitartean, jendea ezagutzen hasi zen, baina zertara joan zen ahaztu zitzaion, bere adineko lagunak bilatzea. Aurkitu zituen baina, aurkitu zituenean autobusa hartzeko itxaroten zeuden. Itzuli zen, baina noski, autobusean. Etxera itzuli zenean... AZE NOLAKO BRONKA, ERORI ZITZAIONA! Hurrengo egunean, ikusi zuena kontatu zien eta txango bat egitea erabaki zuten, Leitzara. Txangoa egin ondoren, oso polita iruditu zitzaien bere etxekoei eta... Ez duzue sinetsiko zer egin zuten. Leitzara joan ziren bizitzera! Oso arraroa izan zen, baina bere lagunentzako normala zen, zeren eta horrelako gauza asko egiten zituen.

Itzel